


Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak %3,3 gehitu ziren 2018ko laugarren hiruhilekoan

Urte osoan %0,9ko gehikuntza metatua izan da

Eustaten datuen arabera, 2018ko laugarren hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmentak %3,3 gehitu ziren prezio finkoetan aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Gasolindegia sartu gabe, salmentak %3,5 gehitu ziren urte artekoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenta-indizea %1,4 erreala gehitu da, urtaroraginak behin kenduta.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Sektoreka, elikagaien salmentak %3,0 gehitu ziren 2018ko laugarren hiruhilekoan, gainerako produktuenak %3,9 igo ziren eta automobilgintzarako erregaiarenak %1,0, betiere 2017ko aldi beraren aldean eta prezioen eraginik gabe.

Elikagaien txikizkako merkataritzan espezializatua %0,5 gehitu zen; elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan, %4,1.

Gainerako produktuen txikizkako merkataritzan aldakuntza positiboak izan dira sektore guztietan. Kontsumoko beste ondasunetan espezializatutako merkataritzan %4,5eko igoera gertatu da; pertsonaren ekipamenduan espezializatuan, %4,2koa; eta etxeke ekipamenduan espezializatuan, %2,3koa. Gainerako produktuak nagusi diren merkataritzaren sektorean gertatu da hazkunderik handiena, %8.4koa, dena prezio finkoetan.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa. IV/2018

	PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera		
Euskal AE	3,3	1,4
Araba/Álava	3,5	2,2
Bizkaia	3,2	1,2
Gipuzkoa	3,4	1,2
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera		
Elikagaiak	3,0	1,2
Elikagaietan espezializatuta	0,5	-0,2
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	4,1	2,6
Beste produktuak	3,9	2,7
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	4,2	5,8
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	2,3	0,6
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	4,5	2,1
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	8,4	3,2
Automoziorako erregaia	1,0	-0,3
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	3,5	2,0
ENPLEGU INDIZEA		
Euskal AE	0,4	0,4

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

Iturria: Eustat.Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Lurraldeka, salmenta-indizea denetan igo da. Araban %3,5 igo ziren txikizkako merkataritzaren salmentak denera, Gipuzkoan %3,4ko igoera izan da eta Bizkaian %3,2koa, hori guztia termino errealetan.

Euskal AE osoan, 2018ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, txikizkako merkataritzan okupatuen kopurua %0,4 gehitu da laugarrenean.

2018ko balantzea

Urte osoan, txikizkako merkataritzaren salmentek %0,9ko gehikuntza erreal metatua eduki dute. Gasolindegia barnean sartu gabe, salmentetan %0,8ko gehikuntza izan da 2018ko datu metatuetan 2017koen aldean. Sektoreka, elikagaiak %2,0 igo ziren, baina gainerako produktuek eboluzio negatiboa eduki zuten, %0,2koa, urtean.

Lurraldeka, urte osoan eta prezio finkoetan, jokamolderik onena Arabak eduki du, %1,4ko gehikuntzarekin; ondoren, Gipuzkoak, %1,0ko igoerarekin; azkenik, Bizkaia, %0,7koarekin.

Euskal AEn, 2018an, aurreko urteko batezbestekoaren aldean, txikizkako merkataritzako enplegua %0,2 gehitu da.

Euskal Aeko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko aldakuntza-tasa

	PREZIO FINKOAK		
	2018	2017	Δ%
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	92,7	91,8	0,9
Araba/Álava	99,0	97,7	1,4
Bizkaia	91,0	90,4	0,7
Gipuzkoa	92,3	91,3	1,0
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	98,0	96,1	2,0
Beste produktuak	89,6	89,8	-0,2
Automoziorako erregaia	87,7	85,4	2,7
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	93,2	92,5	0,8
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	92,6	92,5	0,2

Iturria: Eustat.Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62